



Arrisku kimiko berriak edo emergenteak - RIVM 2015

Osasun Publikorako eta Ingurumenerako Holandako Institutuak (RIVM) txosten bat argitaratu du, osasun publikoan arriskua eragiten duten substantzia kimiko berri eta emergenteei buruz.

Txosten horrek azaltzen du **epe labur, ertain eta luzean arrisku kimikoak agertuko direla**, indarrean dagoen legeriak **araupetutako substantzia kimikoek eragindakoez gain**. Hain zuzen ere, arrisku emergente horiek substantzia berrien, aplikazio berrien, teknologia-garapenen edo prozesuetako berrikuntzen ondorio izan daitezke. Gainera, aintzat hartu behar dira jada existitzen diren substantziak epe luzean erabiltzeak ekarritako ondorioak.

2012az geroztik, RIVM institutuak lanean jardun du, osagai kimiko berriak edo emergenteak (NERCak) identifikatzeko sistema bat sortzeko. Proiektuaren helburua da estresaren faktore kimikoei buruzko informazio berria zuzenean lotzea babesaren hiru helburuen ondoreekin: langileena, kontsumitzaileena eta ingurumenarena.

Txosten horrek laburbildu egiten ditu babes-helburu bakoitzerako NERCen lehentasunak ezartzeko metodologiak. Orobat, neurriak gomendatzen ditu, hautatutako NERCen aurreko esposizioa murrizteko, etorkizun hurbilean.

Txostenaren eranskinetan hiru taldeetarako NERCen zerrenda ematen da. **Aipatzekoak dira elikagaietan eta edarrietan dauden osagai kimiko emergente batzuk, hala nola bromuroa edari energetikoetan eta frutaz eginikoetan, BFRak (garraren atzeratzaileak) eta PFCak (kimiko perfluorinatuak) elikagaiak ukitzen dituzten materialetan, eta disruptore endokrinoak uretan.**

NERCak identifikatzeko hurrengo eta etorkizuneko pausoa da estrategia koherentea eta integrala sortzea, jarraipen-neurriak jasotzen dituen, osagai kimiko horien aurreko esposizioa kudeatzeko, mugatzeko edo murrizteko.

Txostena: NERCak (<http://www.rivm.nl/dsresource?objectid=rivmp:276019&type=org&disposition=inline>)
ELIKA . Granja Modelo, 2/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 . berri@elika.eus (<mailto:berri@elika.eus>)